

Bizkaia, naturala

**BIZKAIKO PARKE
NATUREN
ALDIZKARIA**

REVISTA DE LOS
PARQUES NATURALES
DE BIZKAIA

46 zk. 2025eko udaberria
n° 46 primavera 2025

Lege Gordailua
Depósito legal: BI-1483-2013

Ale kopurua
N.º ejemplares: 3.500

**Kuku arrunta:
iruzurraren maisua
naturan**

El cuco común: el
maestro del engaño
en la naturaleza

**Urratxa, 10.000
urteko historia**
Urratxa, 10.000 años
de historia

**Durangaldeko paisaiei
begire**
Mirando al paisaje del
Duranguesado

**HEGAZTIEN
ISTORIOAK
ERAZTUNKETAREN
BIDEZ**

**LAS HISTORIAS
DE LAS AVES
MEDIANTE EL
ANILLAMIENTO**



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

75

ANIVERSARIO
de la Oficina de Anillamiento
de AranzadiMiles de datos recopilados
y cientos de historias
que contar.

Hegaztien istorioak eraztunketaren bidez



¿Sabías que un pequeño pájaro de sólo 10 gramos cruza cada año el desierto del Sahara, recorriendo miles de kilómetros para sobrevivir? Las aves migratorias esconden historias fascinantes, y el anillamiento científico de aves nos permite descubrirlas.

La Oficina de Anillamiento de la Sociedad de Ciencias Aranzadi (www.ring.eus) fundada en 1949, gestiona anualmente más de 200.000 anillamientos de aves en todo el Estado, gracias a una comunidad voluntaria de más de 600 personas anilladoras dedicadas a estudiar y proteger estas aves.

Aranzadi Zientzia Elkarteko Eraztunketa Bulegoak, 2024an bere 75. urteurrena ospatu zuen, eta hegazti migratzaileen ikerketan funtsezko lana egin du 1949. urtetik aurrera. Euskal Herria, Europatik Afrikara dihoazten hegaztien migrazio-bidean kokatuta dago, eta hamarkadetan zehar, eraztunketa-lanak datu baliotsuak bildu ditu hegazti migratzaileen inguruan. Lan guzti honi esker, gaur egun, eta 75. urteurrenaren testuinguruan, Aranzadiko Ornitologia Saileko ikerlariak Euskadiko hegazti migratzaileen atlasean lanean dihardute, eta laster guztion eskura egongo da. Era berean, informazio guzti hau, euskal gizarte osoari zabaltzeko, hitzaldi eta material didaktikoak lantzen ari dira, hegaztiak eta natura, guztiei hurbiltzeko helburuarekin.

Zergatik da eraztunketa zientifikoa hain garrantzitsua?

Eraztunketa zientifikoa hegaztiak ikertzeko teknika da. Eraztun metaliko bat erabiliz, hegaztiak indibidualki markatzen dira. Eraztun hauek hainbat galderei erantzuteko aukera

ematen digute: Zein da espezieen bizi-iraupena? Zein bide hartzen dute migrazioan? Nola eragiten die klima-aldaketak edo habitaten aldaketek? Eraztunketa zientifikoa informazio oso baliotsua ematen digu, bai espezieen kontserbaziorako, baita kudeaketa egokirako ere.




Argazkia: Juan Arizaga

Hegazti migratzaileen istorioak: liluragarriak eta harrigarriak

LEZKARI ARRUNTA ETA BERE AUSARDIA ITZELA

Pentsatu 10 gramo pisatzen dituen hegazti txiki batean, adibidez argazkian ikusi dezakegun lezkari arrunt honetan. 2017an Gipuzkoako Eratzunketa Taldeak (www.get.eus), Txingudin eratzundu zuen eta 1Y79420 eratzuna ezarri zioten oraindik kumea zelarik. Geroztik, bere migrazioan 42.000 kilometro baino gehiago egin ditu zazpi urtetan! Eta urtero Txingudin berreskuratu dute, 2023. urtera arte. Saharako basamortua gurutzatuz eta Saheleko lehor-teak gaindituz, lezkari arruntak urtero, Afrikatik Euskadiko hezeguneetara egiten ditu bidaiak.



Argazkia: Shutterstock

KILLER, BIZKAIKO BELATZ HANDI OSPETSUA

Killer izeneko belatz handi arra, 2001ean eratzundu zuen harraparietan aditua den Iñigo Zuberogoitia bizkaitarraren lan taldeak. Hegazti espezie batzuei, metalezko eratzunaz gain, urrutitik irakurtzeko beste eratzun bat jartzen zaie. Eratzun hauei esker, hainbat hegazti espezie hobeto ezagutzen ditugu. Killer, B4 eratzuna zuen belatz handia, Dima (Bizkaia) inguruan bizi izan zen 16 urtez. Belatz hau mirotza bezalako espezieak ehizatzen espezializatu zen. 2003tik 2013ra Killerek belatz handi eme batekin 26 kume atera zituen aurrera. Eme hura 2013an desagertu zen eta Killer bi urte beranduago. Honela, Killer 16 urterekin, ezagutzen den belatz handi basatirik zaharrenetako bat bihurtu da.



Argazkia: Iñigo Zuberogoitia

URUBI BATEN MISTERIOAK

Urubi gazteak, udaberri oro, basafauna suspertze zentroetan ingesatuta egotea behin eta berriz errepikatzen den fenomeno da. Udaberri partean, hegan egiten ez duten kumeak, sarritan habietatik goizegi erortzen dira eta askok

lurrean amaitzen dute. Bertan, pertsonak, babes behar duten animaliak direla pentsatuz, zentro batera eramaten dituzte. H25824 eratzuna zuen urubia, horietako bat izan zen. 2000. urtean, Martiodako Basafauna suspertegian (Araba) berreskuratu eta irailean naturan askatu zuten. Berreskuratutako hegaztien jarrapenean eratzunketak ere bere balioa erakusten du.



Argazkia: Shutterstock

2021. urtean, askatutako lekutik 3 kilometrora aurkitu zuten bere eratzuna. Zer gertatu zitzaion urubi honi urte guzti hauetan? Ez dugu inoiz jakingo... baina bere istorioa berreskurapen-lanen arrakasta neurtzeko aukera paregabea da.

Eratzunketa zientifikoa: naturaren misterioak gertutik ezagutzen

1910. urtetik bildutako eratzunketako datuei esker, Euskadiko hegazti migratzaileen atlasa lantzen ari dira Aranzadiko ikerlariak. Tresna zientifikoa eta didaktikoa honek hainbat gauza erakutsiko dizkigu: nondik datozen Euskadiko hegazti migratzaileak, nora joaten diren hegazti hauek, non aurkitzen duten babes gure lurraldean, etab.

Horrez gain, Aranzadi, euskal gizarte osoari informazio hau zabaltzeko interpretatzen errazak diren dibulgazio produktuak lantzen ari da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Alduendiekin elkarlanean. Horrela, edonork eskura izango du informazio guztia, gure lurraldean ditugun hegazti migratzaileen mundu liluragarrian sakontzeko.

Eratzunketa zientifikotik ateratzen diren datuek agerian uzten dute ez dutela soilik kontserbaziorako eta kudeaketarako informazioa ematen, abenturez, erresilientziaz eta erronkez beteriko banakako istorioak kontatzen dizkigutela, baizik. Aranzadiren ekimenari esker, Euskadi ez da soilik hegazti migratzaileentzako pasabide bat. Gure ondare naturala babesteko zientzia, hezkuntza eta kontserbazioa uztartzen dituen lurraldea baizik.

Maite Laso, Agurtzane Iraeta, Ariñe Crespo, Olatz Aizpurua, Juan Arizaga

Aranzadi Zientzia Elkarte / Sociedad de Ciencias Aranzadi



aranzadi
zientzia elkartea



Eratzuntze bulegoa
Oficina de anillamiento

DIBULGAZIO-TAILERRAK / TALLERES DIVULGATIVOS

Euskadiko hegazti migratzaileen bitxikeriak eta eratzunketa zientifikoko materiala ezagutzeko aukera izango dugu. / Tendremos la oportunidad de conocer las curiosidades de las aves migratorias de Euskadi, y el material que se usa en el anillamiento científico de aves.

Urkiola
martxoak 30 marzo

Gorbeia
maiatzak 18 mayo

**ZATOA, GURE ZERUETATIK IGAROTZEN DIREN HEGAZTIAK EZAGUTZERA
VEN A CONOCER LAS AVES QUE VUELAN POR NUESTROS CIELOS**

El cuco común: el maestro del engaño en la naturaleza

Foto: Jon Maguregi Arenaza.

Guztiok entzun izan ditugu kukuari buruzko istorioak eta askok mendi ibilbideetan bere kantuz gozatu dugu, baina nork lortu du baten bat ikustea? Zer dakigu hegazti berezi eta misterioitsu honi buruz? Artikulu honetan, kukua, iruzurraren maisua, hobeto ezagutzeko aukera edukiko dugu.

El cuco común, de nombre científico *Cuculus canorus*, es un ave migratoria e insectívora conocida por sus hábitos reproductivos basados en el parasitismo. Puede parasitar a más de un centenar de especies de pequeñas aves insectívoras, como el acentor común, el carricero común, el petirrojo y los bisbitas. Este comportamiento ha convertido al cuco en un símbolo de adaptación, fascinando tanto a ornitólogos como a amantes de la naturaleza.

El cuco mide entre 54 y 60 cm de envergadura, con un cuerpo estilizado, una larga cola y alas apuntadas, lo que lo hace fácilmente confundible con una pequeña rapaz, como el gavián. Su canto característico es el cu-cu, y su dieta se basa principalmente en larvas de mariposas, como las orugas de procesionaria del pino, y también incluye escarabajos, saltamontes, grillos, lombrices y pequeños vertebrados.

Relevancia ecológica y cultural

El cuco común también ha dejado una huella profunda en la cultura popular. Su canto es un sonido icónico de la primavera, ha inspirado su nombre en varios idiomas y ha sido inmortalizado en relojes de cuco, canciones y leyendas. En muchas culturas europeas, su canto se ha asociado con augurios de cambio o buena suerte.

Desde un punto de vista ecológico, el cuco juega un papel importante en los ecosistemas, regulando indirectamente las poblaciones de pequeños paseriformes. Aunque su



Foto: Jon Maguregi Arenaza

estrategia reproductiva pueda parecer desequilibrante, se trata de un fenómeno natural que contribuye a la dinámica evolutiva entre depredadores y presas.

Distribución y hábitat

El cuco común se encuentra en casi todo el Paleártico, evitando las zonas más áridas, frías o de gran altitud. En Europa, solo está ausente en Islandia, y en Euskadi tiene una mayor densidad en bosques caducifolios, encinares, zonas de monte alto y matorrales. Su área de invernada



Foto: Shutterstock.

está en el África subsahariana, en zonas tropicales y subtropicales. La migración postnupcial ocurre entre agosto y septiembre, regresando en abril a sus áreas de cría.

Estrategia reproductiva

El cuco tiene una estrategia reproductiva parasitaria. En lugar de construir su propio nido, las hembras depositan sus huevos en los nidos de otras aves, principalmente pequeños passeriformes forestales. Los huevos del cuco han evolucionado para mimetizar el aspecto de los huevos del hospedador, lo que reduce las probabilidades de ser detectados.

Cuando el huevo del cuco eclosiona, el polluelo, que nace antes que los demás, expulsa los huevos o polluelos del hospedador para asegurarse de recibir toda la atención y alimento. Este comportamiento puede parecer cruel, pero es una estrategia de supervivencia altamente eficiente que ha permitido al cuco prosperar a lo largo de los milenios. Además, las hembras de cuco tienden a especializarse en una especie hospedadora concreta, lo que aumenta el éxito de su mimetismo.

Abundancia y estado de conservación

En Euskadi, la población del cuco se estima entre 8.800 y 16.000 individuos, con las densidades más altas encontradas en áreas de monte mediterráneo y mosaicos agroforestales a 650-800 metros de altitud. A nivel global, el cuco no está catalogado como especie amenazada, pero enfrenta varios desafíos. La intensificación agrícola y la pérdida de hábitats naturales han reducido las poblaciones de algunas de sus especies hospedadoras, lo que podría afectar su reproducción. Además, las sequías en África, donde pasa el invierno, también representan un riesgo importante.

El cambio climático podría generar un desajuste fenológico entre el cuco y sus hospedadores. Si los hospedadores adelantan su ciclo reproductivo debido al aumento de tempera-

turas, el cuco podría llegar tarde a sus áreas de cría, lo que pondría en peligro su éxito reproductivo. A pesar de estas amenazas, los datos más recientes indican que la población de cucos en Euskadi ha sido estable entre 1998 y 2020.

Conservación y futuro

Es crucial monitorizar las amenazas que enfrenta, especialmente el cambio climático y la pérdida de hábitat. Proteger los hábitats de las especies hospedadoras es fundamental para la supervivencia del cuco. Medidas como la diversificación del paisaje agrícola y la protección de bosques mixtos, son esenciales para mantener un ecosistema saludable, que sustente tanto al cuco como a sus especies hospedadoras.

Es importante realizar investigaciones continuas sobre cómo el cambio climático está afectando los patrones migratorios y reproductivos del cuco. La restauración de hábitats en África subsahariana también podría desempeñar un papel crucial en la conservación del cuco, asegurando recursos suficientes durante su estancia invernal.

En resumen, el cuco es más que un ave parásita; es un ejemplo de la increíble diversidad de estrategias naturales. Su estudio nos ayuda a comprender mejor los complejos equilibrios ecológicos y los desafíos que enfrentan las especies en un planeta cambiante. Su presencia en nuestros campos y bosques es un recordatorio de la fragilidad y riqueza de los ecosistemas que compartimos.

Sergio De Juan Zuloaga
Equinoccio Natura, S.C.

REFERENCIAS BIBLIOGRÁFICAS:

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. Atlas de aves nidificantes de Euskadi.
DAVIES, N. B. *Cuckoos, Cowbirds and Other Cheats*. T & AD Poyser.
PAREJO, D. et al. *Efectos del cambio climático sobre las interacciones ave-parásito*. Ecosistemas, 20(1).
www.seo.org

URRATXA, 10.000 urteko historia

Urratxa es una peña situada en el pequeño valle de Zastegi (Zeanuri), con más de una docena de cuevas, la mayor parte de ellas con yacimiento arqueológico, y una surgencia de agua que da lugar al nacedero del río Baias. El lugar estuvo frecuentado por grupos de cazadores recolectores del periodo Aziliense, al final del Paleolítico; además de por nómadas mesolíticos, hace 7.000 años. Finalmente, un tercer momento de uso se ha registrado en la Edad del Bronce, hace 3.500 años, por alguna comunidad de pastores como lugar sepulcral. Se trata de una pequeña elevación de roca caliza en la que es posible leer la historia de Gorbeia de los últimos 10.000 años

Urratxa kareharrizko mendi txiki bat dela esan dezakegu, eta bertan Gorbeiaren azken 10.000 urteetako historia irakur daiteke. Dozena bat kobazulo baino gehiago ditu, gehienak aztarnategi arkeologikoarekin. Inguru honetan, Baias ibaia- ren iturburua dago, Ubegi izenekoa. Paleolitoaren amaieran, Azil aldiko ehiztari-biltzaile taldeak bertan finkatu ziren, baita duela 7.000 urteko nomada mesolitikoak ere. Azkenik, Brontze Aroan hirugarren erabilera-une bat erregistratu da, duela 3.500 urte, artzain-komunitate batek bere hilobi gisa erabiliz. Horri, garai historikoan, abeltzaintza-jarduera garrantzitsua eta egurgile eta ikazkinena ere gehitu behar zaio.

Egun, Urratxari buruz dugun ezagutza Margarita Muñozek eta bere taldeak 1983an egindako indusketa arkeologikoari zor zaio, Bizkaiko Espeleologia Taldeak 1981ean Urratxa III haitzuloan giza aztarnak aurkitu ondoren. Hori esanda, kobazuloaren erabilera-une desberdinak aztertuko ditugu.

Azil aldia (10.000-9.000 BP)

Goi Paleolitoko azken aldia da, Würm glaziazioaren amaierarekin eta Boreal garaiaren hasierarekin bat dato-

rena. Garai horretan, baldintza klimatologikoak egokiak izaten hasi ziren, mila metroko altueran zegoen Urratxa bezalako haitzulo bat okupatzeko. Garai hau baino lehenago, baldintza horiek ezin ziren gertatu, Gorbeia-ko egungo mendigunean izotz iraunkorrak lituzkeen glaziar klima baten zorrotasunagatik. Giza talde horiek nomadak ziren, eta distantzia ertainera mugitzen ziren, ondo ezagutzen zuten lurralde baten ingurua. Ehizaren eta beste produktu natural batzuen bila zihoazen, elikadura-baliabi- deak lortzeko, urteko garai desberdinen arabera. Lurralde horrek, kostaldetik barrualdeko mendilerroetara arteko eremua hartuko luke, besteak beste Gorbeia, taldearen biziraupena ziurtatzeko.

Epipaleolito / Mesolito (7.000 BP)

Aurreko aldian bezala, bizirik irauteko haragiaz hornitu nahi zuten ehiztari-biltzaile taldeek, berriro erabili zuten haitzuloa. Klimaren oparoaldi bat izan zen, Azil aldian baino bero eta hezetasun handiagoarekin, eta haritzez, urkiz eta hurritzez osatutako basoez osatua. Badakigu basa zezenen bat eta basurdeak ere ehizatu zituztela, baita aztarnategian agertu ziren basahuntzak ere.



Urratxa III. Juanjo Hidalgo.

Brontze Aroa (3.500-3.300 BP)

Urratxa inguruko giza-taldea behi-unai transhumanteak ziren, behin-behineko kanpalekuetan bizi ziren eta kobazuloa hiletakune gisa erabiltzen zuten. Haritzek eta hurritzek osatuta zegoen basoa, pago gutxirekin, eta ez oso itxia, beraz, belardi eremu irekiak egongo ziren, larrerako proposak zirenak.

Haitzuloaren hilobi-gune erabilera zela eta, 13 pertsonen gorpuzkiak erreskatatu ahal izan dira, eta haien adinak, hezurren eta hortzen azterketaren bidez jakin izan dira.

Urratxa III.ean egiten zuten hileta-erritua ehorzketa zen, baina ez zuten gorputza lurlean sartzen, baizik eta lurlean utzi, sarreratik pixka bat ezkutatuta dagoen leku ilun batean. Horrela, hildako bakoitzarekin behin eta berriz egindako ekintza berak, eta animalia batzuen barnera sartzeak, adin eta sexu desberdinetako gizabanakoak nahastea ekarriko zukeen, mota honetako hilobi kolektiboetan ohikoa den bezala. Hileta praktika hauek denbora tarte zabal batean iraun zuten, Neolitotik hasi eta erromanizazioraino, nahiz eta Kalkolitoko eta Brontze Aroko lehen etapetako berezkoagoak diren. Urratxan kontserbatutako ajuarrak urriak eta oso zatikatuak dira, gehienbat oboide formako ontziei dagozkien zeramika zatiak, eta seguruenik beste motatako ofrenda batzuk dira, agian elikagaiak edota begetal sinbolikoak, guztiz galkorrak.

Azkenik, badakigu 1960. urte inguruan egurgile talde bat, kobazuloaren atarian bizi izan zela zuhaitzak inausten zituz-



Urratxako Brontze Aroko buruhezurra, Arkeologi museoa.

Kantal margotua, Arkeologi museoa.

ten bitartean, egur-ikatzak egiteko. Orozkoko ikazkin horiek aterpe bat eraiki zuten sarreran, eta, zalantzarik gabe, haien okupazioak neurri handiagoan edo txikiagoan aldatu zuen jatorrizko aztarnategia, horretaz ohartu gabe. Bixiena da, hauek baino 10.000 urte lehenago, beste gizaki batzuek ere, Urratxa babesleku ona zela pentsatu zutela.

Juanjo Hidalgo



Gehiago jakiteko

- Muñoz Salvatierra, M.; Berganza, E., 1997, *El yacimiento de la cueva de Urratxa III (Orozko, Bizkaia)*, Cuadernos de Arqueología, nº 16, Universidad de Deusto, Bilbao.
- Arkeologi Museoa, Mallona Galtzada, 2, Bilbo.

Durangaldeko paisaiei begire

Paisaiak gizakiak bere ingurunearekin dituen harremanak islatzen ditu. Horrek, komunitate baten duen giza-nortasuna zein nortasun kulturala itxuratzen du eta biztanleriaren bizi-kalitatean eragin zuzena du. Hori dela eta, paisaia kontserbatzea, kudeatzea eta antolatzea ezinbestekoa da ekosistemak, biodibertsitatea eta ondare historiko zein kulturala mantentzeko.

En los últimos años, la preocupación por el paisaje que nos rodea ha ido suscitando un interés progresivo en temas relacionados con el medio ambiente, la planificación territorial y la identidad cultural. Esta inquietud surge principalmente de la creciente conciencia sobre los efectos que actividades como la industria, la acelerada urbanización, la explotación de los recursos naturales o la construcción de infraestructuras, tienen sobre el entorno natural y cultural. El paisaje, más que una mera expresión visible del territorio, es fiel reflejo de las relaciones entre el ser humano y su entorno, configura la identidad social y cultural de una comunidad, influye en la calidad de vida de sus habitantes y es un valioso recurso tanto para el bienestar ecológico como para el desarrollo sostenible. Su conservación, gestión y ordenación se presentan como un reto esencial para el mantenimiento de los ecosistemas, de la biodiversidad y del patrimonio histórico y cultural, en búsqueda de un equilibrio entre los diferentes usos y actividades del territorio, así como el derecho a vivir en un entorno agradable.

Siguiendo esta perspectiva, la adhesión de la CAPV al Convenio Europeo del Paisaje (CEP) en 2009 supuso, entre otras cosas, la asunción de los compromisos de integración del paisaje en la planificación del territorio. Con el objetivo de poder lograr esta meta, el Decreto 90/2014, de 3 de junio, identifica como instrumentos necesarios los catálogos y sus determinaciones. En este contexto, la Diputación Foral de Bizkaia se ha encargado de promover la elaboración del Catálogo y Determinaciones del Paisaje del Área Funcional de Durangaldea durante 2023 y 2024.

El catálogo es una herramienta que ha permitido identificar, caracterizar y valorar el paisaje de Durangaldea mediante el análisis de los elementos que lo componen, su funcionamiento y las características que se perciben, ya sean sus formas, colores o texturas, además de los valores con los que cuenta. Por este motivo, la visibilidad se muestra como un factor fundamental, cuyo análisis permite conocer cómo se accede al paisaje y se observa. Su estudio integral, además ha servido para señalar las fuerzas y presiones a los que se ve expuesto, cómo lo han transformado a lo largo del tiempo y cuáles son sus principales retos de cara al futuro.

Como resultado de este proceso, se han identificado 16 unidades de paisaje, cuyos componentes se manifiestan morfológicamente de manera única y diferenciada, pero poseen rasgos comunes a otras unidades que permiten agruparlos en 4 dominios del paisaje, siguiendo principalmente, una lógica topográfica. Las zonas elevadas forman parte de los dominios del paisaje de las montañas de la divisoria de aguas y de los montes singulares del interior de Bizkaia, donde la naturaleza configura sus formas y aspecto, siendo el habitual y simbólico fondo escénico de Durangaldea. Las áreas más bajas son los fondos de valle atlánticos, caracterizados por la presión e intervención antrópica que los ha ido moldeando a su antojo. Son el paisaje habitado y transitado. Por su parte, las laderas y los pequeños valles forman parte del mosaico agroforestal atlántico. Es el dominio que agrupa un mayor número de unidades y se asocia con el característico paisaje rural vas-



co de la vertiente atlántica, compuesto por una mezcla de texturas tamizadas por prados, bosques, plantaciones forestales y caseríos.

Además, se han identificado áreas del paisaje que presentan unas características particulares, que debido a su singularidad o complejidad, requieren una atención especial y para las que es necesario establecer estrategias, criterios y acciones específicas para su protección, gestión y ordenación. Son las denominadas Áreas de Especial Interés Paisajístico (AEIP). Éstas han sido agrupadas en cuatro bloques temáticos que responden a la similitud de sus características y problemática. Son los denominados paisajes naturales, paisajes del agua, paisajes agrarios y paisajes antrópicos. En el primer grupo se recoge el Parque Natural de Urkiola, como un espacio de especial interés por sus evidentes valores naturales y culturales, asociados a su reconocimiento, visibilidad y significación social que imprime un singular carácter al conjunto de Durangaldea.

El proceso ha culminado con la formulación de los Objetivos de Calidad Paisajística (OCP), donde el trabajo técnico se ha apoyado de la participación pública para discernir las aspiraciones sociales sobre su territorio, con la propuesta de acciones y medidas específicas que lleven a su consecución.

En la próxima revisión del Plan Territorial Parcial de Durangaldea, se deberán incluir las Determinaciones del Paisaje obtenidas durante este proyecto, con el objetivo de incorporarlas al planeamiento territorial.

Adrian Díez Angulo y Jan-Lukas Menzel Barraqueta

DURANGALDEKO PAISAJEI BEGIRE



DURANGALDEKO EREMULEUNTZIONALEKO PAISAJIAREN KATALOGOA ETA ZEHAZTAPENAK
CATALOGO Y DETERMINACIONES DEL PAISAJE DEL ÁREA FUNCIONAL DE DURANGALDEA

Ezin zara ikusi gabe geratu...

No te puedes perder...

► Armañón



Parke Naturaleko Turtziozko isurialdean kokatua, Valneroko kanala, Armañongo elementu geografiko berezi eta aipagarrienetako bat da. Faila geologiko honek, lehen begiratuan, argi eta garbi, Jorrioseko kareharriak eta Armañongo hareharriak bereizten ditu. Landaretza oparoz eta liluragarritz inguratua, bioaniztasun handiko eremua da, ehun urtetik gorako gaztainondo batzuk nabarmentzen direlarik. Urte sasoi honetan bisitatzeko bereziki erakargarria da, bere garrantzi geologikoagatik eta failak paisaian duen ikusgarritasunagatik.

Situado en la vertiente trucense del Parque Natural, el canal de Valnero es uno de los accidentes geográficos más singulares y destacables de Armañón. Se trata de una falla geológica que separa, a simple vista, la zona caliza de Jorrios de la arenisca de Armañón. Rodeada de vegetación exuberante y de gran belleza, alberga una gran biodiversidad, destacando en la zona varios castaños centenarios. Por su importancia geológica y su entidad en el paisaje, se convierte en un enclave atractivo para visitar en esta época del año.

► Gorbeia



Garai batean lanean aritzen ziren Gorbeia basoetan, euren lana zela eta aurpegia zikin edukitzen zuten. Lan gogorra zen, ateratako ikatza, zakuetan sartu eta idi edo mandoen laguntzaz, burdinoletara garraiatzen zuten. Egun, gure basoetan oraindik ere lanbide zahar hauen arrastoak ikus ditzakegu; boto edo txondor plazak, etxolen arrastoak edo deigarriak diren pago lepatuak ere.

Antiguamente trabajaban en los bosques de Gorbeia, debido a su trabajo tenían la cara sucia. Era un trabajo duro, el carbón extraído, lo ponían en sacos y lo transportaban en bueyes o mulas a las ferrerías. Todavía podemos ver vestigios de aquel antiguo oficio; la base o plataforma, restos de casetas o las llamativas hayas trasmochas.

► Urkiola



Marketeria, puzzle moduko bat osatzeko egur xaflen koloreak eta betak konbinatzen dituen diziplina da. Egur mota ezberdinekin (pagoarena, gaztainondoarena, haritzarena, gereziundoarena eta intxaurrendoaena besteak beste) eta zumar, lizar zein intxaurrendoaen sustraiak erabiliz, Jose Angel Ferrok, marketeriazko hegaztien irudi ezberdinak osatu ditu. 22 lanez osaturiko erakusketa, Parketxean ikusgai izango da udaberri osoan zehar.

La marquetería es una disciplina que combina diferentes láminas de madera natural y aprovecha sus colores y vetas, creando una especie de puzzle. Jose Angel Ferro ha elaborado imágenes de diferentes aves utilizando madera de haya, castaño, cerezo, roble y nogal entre otras, así como raíces de olmo, fresno y nogal. 22 de sus obras estarán expuestas en el Parketxe durante la primavera.

Ekintzak Armañonen / Actividades en Armañón

Udaberri osoan zehar / Durante toda la primavera

Argazki erakusketa. Espeleologiari buruzko argazki erakusketa ikusgai egongo da Parketxean.

Exposición fotográfica. Se podrá visitar en el Parketxe la exposición fotográfica sobre espeleología.

MARTXOA / MARZO

Larunbata 22, sábado

Mendi ibilbidea: Valneroko kanal ikusgarritik doan ibilbide zirkularra egingo dugu, Parke Naturaleko Turtziozko isurialdetik igaroz. Distantzia: 9 km. Desnibela: 400 m.

Itinerario de montaña: realizaremos una ruta circular por el espectacular canal de Valnero, recorriendo la vertiente trucescense del Parque Natural. Distancia: 9 km. Desnivel: 400 m.

APIRILA / ABRIL

Larunbata 12, sábado

Ibilbide gidatua kukuaren (*Cuculus canorus*) portaera eta bitxikeriak ezagutzeko, Equinoccio Naturako Sergio de Juanen eskutik. 10 urtetik gorakoentzako ekintza.

Itinerario guiado para conocer el comportamiento y curiosidades del cuco (*Cuculus canorus*), de la mano de Sergio de Juan, Equinoccio Natura. Actividad a partir de 10 años.

MAIATZA / MAYO

Larunbata 10, sábado

Mendi ibilbidea: Moro Haizaren magaletik joanda, Valle del Silencio izeneko ingurunean murgilduko gara. Distantzia: 8,5 km. Desnibela: 500 m.

Itinerario de montaña: recorreremos las faldas de la Peña del Moro para adentrarnos en el Valle del Silencio. Distancia: 8,5 km. Desnivel: 500 m.

Igandea 25, domingo

Mendi ibilbidea: Los Tornos mendatetik Zalama mendiraino igoko gara ibilbide lineala eginiz. Distantzia: 17 km. Desnibela: 783 m.

Itinerario de montaña: ruta lineal desde el puerto de Los Tornos hasta el monte Zalama. Distancia: 17 km. Desnivel: 783 m.

EKAINA / JUNIO

Igandea 8, domingo

Tailerra Turtziozen: naturan bildutako edo birziklatutako materialekin eskulanak egingo ditugu Ingumenaren Eguna ospatzeko. Haurrei zuzenduta.

Taller en Trucíos: con motivo del Día del Medio Ambiente haremos manualidades empleando materiales reciclados o recogidos en la naturaleza. Dirigido al público infantil.

Ekintzak Gorbeian / Actividades en Gorbeia

MARTXOA / MARZO

Igandea 23, domingo

Orientazioa familian. Areatzako herria orientazio jolas baten bidez ezagutzeko aukera paregabea, Lamino Kirol Klubarekin elkarlanean.

Orientación en familia. Conoceremos el pueblo de Areatza, mediante un juego de orientación, en colaboración con Lamino Kirol Kluba.

APIRILA / ABRIL

Larunbata 5, sábado

Mendi irteera: Ubide-Oketa. Udaberriko koloreez gozatzeko ibilbide zoragarria, Oketa mendiaren inguruan. Distantzia: 14 km. Desnibela: 450 m.

Itinerario de montaña: Ubide-Oketa. Recorrido por la zona de Oketa, donde disfrutaremos de los colores mágicos de la primavera. Distancia: 14 km. Desnivel: 450 m.

MAIATZA / MAYO

Igandea 18, domingo

Dibulgazio-tailerra: Aranzadi Zientzia Elkarteak Olatz Aizpuraren eskutik, Euskadiko hegazti migratzaileen bitxikeriak eta eraztunketa zientifikoko materiala ezagutzeko aukera izango dugu. Gazteleiaz.

Taller divulgativo: de la mano de Olatz Aizpurua, de Aranzadi Zientzia Elkarteak, tendremos la oportunidad de conocer las curiosidades de las aves migratorias de Euskadi, y el material que se usa en el anillamiento científico de aves. En castellano.

Larunbata 31, sábado

Mendi ibilbidea: Ubide-Orozko GR-123. Parkea, ekialdetik mendealdera ibilbide luze bat eginiz zeharkatuko dugu. Distantzia: 32 km. Desnibela: 1.350 m.

Itinerario de montaña: Ubide-Orozko GR-123. Atravesaremos el Parque de este a oeste, en uno de los recorridos más largos de Gorbeia. Distancia: 32 km. Desnivel: 1.350 m.

EKAINA / JUNIO

Igandea 15, domingo

Mendi irteera: Itzina inguru karstikoa zeharkatuko dugu. Pagomakurre – Atxulo – Supelegor – Kargaleku – Pagomakurre. Distantzia: 10,5 km. Desnibela: 450 m.

Itinerario de montaña: atravesaremos la zona kárstica de Itzina. Pagomakurre – Atxulo – Supelegor – Kargaleku – Pagomakurre. Distancia: 10,5 km. Desnivel: 450 m.

Larunbata 21, sábado

Mendi irteera: Gorbeia mendiaren itzalean dagoen Aldamin tontorraren inguruan, ibilbide zirkular bat burutuko dugu. Distantzia: 13 km. Desnibela: 900 m.

Itinerario de montaña: Realizaremos un itinerario circular por los alrededores de Aldamin. Distancia: 13 km. Desnivel: 900 m.

Ekintzak Urkiolan / Actividades en Urkiola

Udaberri osoan zehar / Durante toda la primavera

Marketeriaz egindako hegaztien erakusketa, Jose Angel Ferroren eskutik.

Exposición de aves realizadas en marquetería por Jose Angel Ferro.

MARTXOA / MARZO

Igandea 30, domingo

Dibulgazio-tailerra: Aranzadi Zientzia Elkarteak Olatz Aizpuraren eskutik, Euskadiko hegazti migratzaileen bitxikeriak eta eraztunketa zientifikoko materiala ezagutzeko aukera izango dugu. Euskaraz.

Taller divulgativo: de la mano de Olatz Aizpurua, de Aranzadi Zientzia Elkarteak, tendremos la oportunidad de conocer las curiosidades de las aves migratorias de Euskadi, y el material que se usa en el anillamiento científico de aves. En euskera.

APIRILA / ABRIL

Igandea 6, domingo

Marrazketa tailerra. Oinarrietan hasita, paisaia, loreak, zuhaitzak... nola marraztu ikasiko dugu Eñaut Aiarzaguenaren eskutik. Euskaraz eta 15 urtetik gorakoentzat.

Taller de dibujo. Empezando por las bases, aprenderemos cómo dibujar el paisaje, las flores, los árboles... con Eñaut Aiarzagüena. En euskera y para mayores de 15 años.

MAIATZA / MAYO

Igandea 11, domingo

Ibilbide mitologikoa Baltzolan, Aitor Ventureiren gidaritzapean. Gazteleiaz eta 14 urtetik gorakoentzat. Itinerario mitológico en Baltzola guiado por Aitor Ventureira. En castellano y para mayores de 14 años.

Larunbata 24, sábado

Mendi ibilbidea: Anboto mendilerroan dagoen Alluitz mendiaren inguruan ibilbide zirkular bat burutuko dugu. Distantzia: 12 km. Desnibela: 855 m.

Itinerario de montaña: realizaremos un itinerario circular alrededor del monte Alluitz, localizado en la sierra de Anboto. Distancia: 12 km. Desnivel: 855 m.

EKAINA / JUNIO

Larunbata 7, sábado

Ibilbide geologikoa: arroken munduan murgilduz Urkiolako paisaiaren interpretazio bat egingo dugu EHUKo geologoen eskutik. Distantzia: 8 km. Desnibela: 350 m. Elebiduna.

Itinerario geológico: nos sumergiremos en el mundo de las rocas para realizar una interpretación del paisaje de Urkiola de la mano de geólogos de la UPV. Distancia: 8 km. Desnivel: 350 m. Bilingüe.

Ángela meategira bisita
Visita a la mina Ángela



Zeberioako iturri zaharrak
Fuentes antiguas de Zeberio



20. Zuhaitz Eguna
20.º Día del Árbol



Mendi ibilbidea: Moro haitza
Itinerario de montaña: peña del Moro



Zuhaitz Eguna
Día del Árbol



Artzain egun batez Alluitz Naturan
Pastor por un día en Alluitz Natura



Bizkaiko Parke Naturalei buruzko informazioa jaso eta antolatutako ekintzen berri izan nahi duzu?

Egin zaitez Parkeetako Laguna edozein Parketxerekin harremanetan jarriz.

¿Quieres recibir información sobre los Parques Naturales de Bizkaia y sobre las actividades que organizamos?

Haszte Amigo o Amiga de los Parques contactando con cualquiera de los Parketxes.



ARMAÑÓN

Ranero auzoa z/g Avda. Lehendakari Agirre
48891 Karrantza 48880 Turtzioz
946 560 079

armanon.parke.naturala@bizkaia.eus



URKIOLA

Urkiolako mendatea 8
48211 Urkiola
946 814 155

urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus



GORBEIA

Gudarien plaza z/g
48143 Areatza
946 739 279

gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus